

Xalbador bat bakarra da munduan. Ez du beste izen beharrik Urepeleko bertsolariak. Jakin ere inork gutxi daki Ferdinand Aire izen deituraz zerrendatu zutela bere gurasoek herriko jaiot-agirian eta elizako bataio-agirian. Baina "Xalbadorrenea" baserrian jaio zenez, berak aitortzen duen bezala, sortetxeak eman zizkion "izana eta izena".


Bertsolaritza indarberritzen ari zen garaian, Basarri eta Uztapide bezalako bikotearen ondoan hazi zen Xalbador, lagun paregabea zuelarik Mattin: herriz-herri, plazaz-plaza, jaialdiz-jaialdi, txapelketaz-txapelketa. Euskal Herri osoan ezaguna, miretsia eta maitatua, lehen ere behin baino gehiagotan omendua, 1969an Donostian, 1976ko uztailean Donibane Lohizunen, bere sorterrian nahi zen omendu azkenik.

Hain zuzen ere, 1976ko azaroaren zazpia zen. Arima ere ebakitzen duen haize horietakoak jotzen zuen egun seinalatu hartan. Jendetza haundia egoen bildurik Urepelen Xalbadarren ohoretan, Meza Nagusian, lagunarteko

bazkarian eta arratsaldeko jaialdian. Bertsolariekin eta lagun zahar guztiekin umoreko eta adeitsu ibili zen

1

Ferdinand Aire XALBADOR (1920-1976).



Xalbador egun osoan. Baina bapatean, inor ohartzera, haren omenez gogotsu kantari ari ziren bertsolarien artetik erretiratu beharrean izan zen. Omenaldiarekin batera amaitu zen Urepeleko bertsolariaren bizia ere.

## OMENALDIAN HIL

Honela gogoratzen du Joxemari Aranaldek: "Bazkalondoko bertso saioa ari zuen. Bera ohorezko lekuan


zegoen jarrita. Jeiki, lagunak han utzi eta kanpora atera zen. Metro batzuk aldarka-maldarka egin, eta han bertan erori zen. Kanpoan, jaialdira sartu gabe, haurrak zaintzen eta abar zeuden norbaitzuek ikusi eta jaso zuten eta frontoiaren pareko udaleku-etxera eraman.

Handik ordubete bat ingurura gorputz zen. Doi-doi izan zuen astia emazteari enkarguren bat emateko. Ondoan gertatu zen batek esanda dakit, "ez dizkiat erremertsiatzen ahal"

Ohitura handia zuen Xalbadorrek jarrera barneko honetan egoteko, egun horretan, ordea, heriotzaren zain ere bazegoela dirudi, berak alde aurretik adierazi bezala.

Joxean Artze. Xalbadorreneko atea zabalik izan ohi zituen Usurbilgo poetaren txalapartaren doinu hunkigarritz ehortzi zen Xalbador.





3

Xalbadorren hiru oihu: "Ezin bertzean" egiten zuen bertsotan, "Odolaren mintzoa"k, "Herria gogoan", beharturik.



esaten omen zuela. Ezin izango zuela, alegia, jenderik eskertu. Ez zuen jendearekin kunpliterik izan. Alferrik izan ziren Laberie abeslari eta medikuaren ahaleginak, eta herriko medikuarenak. Astinaldi ederrik eman zioten, baina ez zuten bihotza martxan jarri ahal izan. Gelditua zen betirako.

Hura iluntzea! Zer zen hura! "Nik hil dut" errepikatzen zuen behin eta berriz Mixel Itzainak, bera izan baitzen omenaldi-antolatzaile nagusi. "Zer? Zer?" galdetzen zuen Lazkautxikik, zerbait entzun zuenean. Mattinek berriz ez zekien zer esan. Zer zen hura!



Euskal Herrian ezezik Ameriketara eta Parisen ere kantatu zuen Xalbadorrek, Eiffel-en 1961ean egindako argazki honek ederki adierazten duenez.

Eta zer zitekeen hura, baldin eta jendetza hura enteratu izan balitz, autoa arrankatzen zuen une haretan bertan eta handik metro gutxitara, Xalbador hiltzen zegoela, edo eta iadanik hilda? Eskerrak jendea bidean irratiz enteratu zen, edo etxean etxeko bidez. Urepeletik alai zetorren frankok aurkitu zuen aurpegi tristerik. Hori marka!

Ez zuten uste hartantxe antolatu omenaldi hura Mixel Itzainak eta abarrek, eta ez ginen gu ere uste hartantxe bildu Urepelen hainbat eta hainbat bertsozale, euskaltzale eta

Xalbador Ameriketara, Californiara artzain joan zitzaion Mixel seme zaharrena bisitatzen.



Mattin eta Xalbador jaialdi eta txapelketa gehienetako saltsa eta biperra, argazkietan ere elkarren ondoan jartzen ziren ia beti.



abertzale. Iparraldean egundaino egin zen euskaldun bilerarik haundiena zioten hangotarrek. Nola mikaztu zitzaigulako gero, goizean izotz xuritan egin genuen gosari alai hura! Ez, ez genuen halakorik espero.

Egun hark kezkatzen zuen bakarra, nik uste, omendua zen. Hark bakarrik zion beldur omenaldiari. Behin eta berriz adierazia zeukan, bere bihotza ez oten zen gauza izango egun hari buelta emateko. Baina haren kezkaz inor ez zen jabetu. Nola bada? Ez al zuen mekiduak esaten gaitza, bihotzean ez baina, buruan zeukala? Irudipen hutsak zirela haren ustetako bihotzeko minak? Ai, medikua, medikua!

Beldur zen, eta han isildu zen haren ahotsa betirako. Azaroaren zazpia zen eguna; 1976 urtea: iluntzeko seiak ordua"

## BETI GOGOAN IZANGO DEN BERTSOLARIA

Otaño eta Xenpelar bezalaxe ahaztuko ez den bertsolaria izango da Xalbador, bere bertsoen ederrez eta sakonez beti gogoan izango den bertsolaria, alegia. Ateraldiengatik, xelebrequeria eta txisteengatik gogoratu ohi da zenbait. Urepeleko artzaina ere kontalari ona zen. Hamaika pasadizo, ipuin eta txiste kontatu ohi zuen lagunartean. Urrutira ematen zuen baino hitzunagoa eta alaiagoa zen Xalbador. Parisa egin zuten bidaiari isildu ere ez zela egin kontatzen du Basarrik: "itxura kontrakoa zen... barru-barruan oso alai eta jolastia zen. Aparteko grazia zuen txisteak eta gertaerak kontatzen... zenbat gozatu genuen!"

Hala ere, bertsoengatik gogoratuko eta miretsiko da Xalbador mendez mende. Izan ere, *Odolaren mintzoa* liburuan bilduma paregabea utzi zigun.



Xalbador, etxeko atarian, Leoni emaztearekin eta Mikei Atxaga adiskidearekin, 1974eko udaberrian.

Joxemari Aranaldek dioenez, "bertsolari bakar batek inoiz idatzi duen bertso libururik onena". Baina idatzizkoetan bakarrik ez da maisua, eta Mattinek zioen bezala "parekorik gabea", baita bapatekoetan ere. Bertsozaleak buruz kantatu ohi ditu Urepeleko artzainaren zenbait bertso. Nork ez ditu gogoan emazte zenaren soinekoari 1965eko txapelketan Anoetan kantatutako bertsoak? "Egundo geure denboran kristauaren aotik entzun ditugun bertsorik onenak, Txapelketa egunean Xalbadorrek kantatutakoak izan ziran, emazte zanaren soñekoari kantatutakoak alegia" idatzi zuen Basarrik *Zeruko Argia* astekarian.

Pentsa zazue alargundu bat  
ez daike izan urusa,  
dolamen hunek, oi!, ez dezala  
ainitz gehiago luza,  
orai urtea ziloan sartu  
andreñoaren gorputza,  
haren arropa hantxet dilindan  
penaz ikusten dut hutsa.

Geroztik nihaur ere nabila  
guzia beltzez jantzirik,  
ez dut pentsatzen nigar eiteko  
ene begiak hersterik,  
ez pentsa gero, andre gaixoa,  
baden munduan besterik  
zure arropa berriz soinean  
har dezaken emazterik.

Edo jendearen haserrea eta txistuak txalo bihurtarazi zituen hura? Zer dela eta ardaila eta istilu hura Anoetako frontoian? Batetik, Xalbadorren euskara arrotz samarra eta ulertzeko hemengoena baino zailagoa gertatzen zen; bestetik, Lazkao-Txikiren aldeko jende asko etorri zen, batez ere

Goierritik. Txapelaren bila  
Uztapiderekin neurtzeko epaimahaiak  
Xalbador aukeratu zuenean sortu zen  
iskanbila. Edozer gerta zitekeen une  
larri hartan. Bertsolariak erabat  
zapuzturik etxera alde egin zezakeen  
edo beroturik sekulakoak esaten hasi.  
Baina Xalbadorren apaltasunak eta  
sentiberatasunak jendea isiltzea eta  
txaloka hastea lortu zuen.

Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa  
neure gustura nagonik,  
poz gehiago izango nuen  
albotik beha egonik;  
zuek ezpazerate kontentu  
errua ez daukat, ez nik, ...

Jendearen txaloek bertsoa ezin  
bukaturik utzi zuten Xalbador. Txaloak  
isildu zirenean amaitu ahal izan zuen  
bere bertsoa, negar malkotan.

zuek ezpazerate kontentu  
errua ez daukat, ez, nik,  
txistuak jo dituzute bainan  
maite zaituztet orainik!

Bertso hori bakarrik aski litzateke bat  
txapeldun izendatzeko. Baina ez zen  
egun hartako bertso on bakarra izan.  
Hala ere, gertatutakoa gogoan,  
epaimahaia ez zen txapela Xalbadorri  
ematen ausartu. Eta 1967ko ekainaren  
hamaikagarren egun hartan ere  
Uztapidek jantzi zuen txapela, naiz eta  
Xalbadorrek irabazi bertsozaleen  
bihotza betiko.

*Odolaren mintzoa* liburuan ezezik,  
txapelketetako saioekin  
argitaratutakoetan eta 1969an *Ezin  
Bertzean* eta 1981 ean *Herria Gogoan*  
Xalbadorren bertsoz osatutako  
bildumetan aurkituko du bertsozaleak  
ale ederrik. Izan ere, hark ez zuen  
erraxkeriarik maite, beti zerbait berria,  
ederra eta sakona esan nahi izaten  
zuen eta esan behar zuena, doinu,  
kantu eta abots egoki-gozoan  
aldarrikatzen.

Antonio Zabalak *Herria Gogoan*  
liburuan kontatzen digunez Xalbador  
betoskoarekin zebilen Elizondon,  
astebete lehenago Joan Mari

Haritscheihar eta Emile Larre, euskaltzainburu eta euskaltzain  
baigorriarrak, Xalbadorren bi adiskide eta miresle handiak.



Lekuonak Oiartzunen jarritako gai bera eman ziolako Mariano Izetak, hiru bertso kanta zitzaiz. Pasadizo hori kontatzerakoan Xalbadorren jokabide hauxe gogoratzen digu Zabalak: "Ni ez nintzan Xalbadorren asarrez batere arritu. Ez baitzuan bere gogoko, gai bera bein baino geiagotan erabiltzea. Askotan entzun izan nion ori. Bide ortatik bertsolaria errexkerira erortzen dala esaten zuan. Berari, aldi bakoitzean esakizun berria billatzea gustatzen zitzaion. Leen eta azken agurra ere, berri-berria kantatuko zuan arek beti. Ori zala eta, ederki estutzen zuan gizagajoak bere burua".

Xalbador Jorge Oteizarekin, Zeruko Argiaren idazkolan, 1975ean. Antton Elizegiren argazkian ederki nabarmetzen dira bi munduak, bien tartean dagoen atearen bidez. Oteizak bertsolariaren arima ezagutu nahi izan bazuen ere, Xalbadorrek ez zuen haren beharrik sumatu.



Oiartzunen eta Elizondon, 1973ko ekainaren 10ean eta 17an, "Amatxi"ri kantatu beharrean gertatu bazen ere, desberdinak kantatu zituen batean eta bestean, gai berdina izanik ere, beste alderdi batetik jorratzen saiatzen baitzen. Baina berritasuna bakarrik ez zuen maite, besteak beste, Joan Mari Lekuonak *Ahozko euskal literatura* liburuan idazten duenez, "eragin haundia baitu Xalbadorrek gaia zehazteko eta banatzeko eretan".

Zerbait berezia badu Xalbadorrek urtero haren heriotzaren urtemugan bere adiskideak Urepelen bilduz jarraitzeko eta omenaldia eskaintzeko Hamargarren urteurrenean, gainera, Jose Maria Zirarda, Iruñeko artzapezpiku eta guzti eman zen meza nagusia, hil zen lekuan eta bizi izan zen kaxkoan oroitarriak ezarri aurretik. Baina adiskide eta bertsozaleen mundutik kanpora ere bada Xalbadorren oihartzunik, liburudendak eta ikastolak zabaldu izan baitira "Xalbador" izenez Iruñean eta Kanbon, sariketak eta txapelketak antolatu han eta hemen, pastoralak idatzi eta antzestu haren bizitzaz Zuberoko Larrañen eta olerkiak, bertsoak eta kantuak egin haren oroitzapenez, Xabier Lete, Mattin Treku, Ernest Alkhat, Joxemari Aranalde eta abarrek.



## HAURTZAROTIK EUSKALTZALE

Ferdinand Aire 1920ko ekainaren 19an jaio zen. Euskal Herria eta Nafarroa bitan banatzen dituen Frantzia eta Espainiako estatuen muga-mugan. Xabadorrentzat, ordea, Euskal Herri bakarra eta Nafarroa bakarra izango dira beti. "Seiak bat" kantatuko du beti. Eta ez du sekulan onartuko "frantsesa" deitzerik. Euskaldun da Xalbador eta kitto.

Txikitan eskolara joan zenean maistra edo errients euskaldunarekin topo egiteko zoria izan zuen. Eta harekin hor nonbait kopontzen zen, "behar orduan euskaraz mintzatzen" zitzaionez. Horregatik ez zitzaion "hura hain arrotza iruditzen". Baina eskola haundira heldu zenean maisu edo errient fransesarekin ez zen ongi konpondu. "Errientaren eta ene artean aldiz, frantses hizkuntzak egiten zuen harresi bat ikaragarria. Etzen ez nuelakotz konprenitzen; bainan ez nuen deus ere egiten haren ikasteko. Ez nuen nahi ene burua frantsesez mintzo aditu; eta frantsesez mintzo zelakotz eta euskara hastio, nuen nik ere ene aldian gure errienta hastiatu" kontatzen digu *Odolaren mintzoa* liburuan.

Eta maisuaren kontrako amorrak eskolarako gogaitu zuen erabat. Aurrena piper edo sasi-eskola egiten hasi zen. 11 urterekin, berriz, erabat

utzi zuen. Alferrik izan ziren maisuaren eta gurasoen ahaleginak.

Eskola betiko utzi bazuen ere, katixima ez zuen utzi, ordea, nahiz eta Uharriet erretorea apaiz zorrotza izan. Baina maisua ez bezala euskalduna eta euskaltzalea, "katiximarekin batean entseatzen baitzen guri euskararen ere erakusterat. Jaun ertoraren eta ene artean bazen gauza bat haren karguaren eta ene

9



"Mendian sortu bainintzan,  
laguntzat ene bizitzan  
artaldea dut nik izan;  
haur nintzaneko, aitak erranik

ardiak goberna nitzan,  
plantatu nintzan artzaintzan,  
mundu hunetan gabiltzan  
gizon xumeen langintzan".





Hamalau urterekin hartu zuen artaldea bere gain Xalbadorrek, hala ere, berak nahi baino beranduago.

"Iparretik hotzik datorken aizearen gordabian, etxetik urrun han dago artzain etxola mendian".



eginbidearen arteko korropiloa laxatzen zuena: hura zen gure hizkuntza maitea. Eskola ere euskaraz egin balaukute, ikasi beharrak errex ikasiko nituen nik ere".

Euskara baztertzeak arrunt mintzen zuen Xalbador. Zabarkeriaz baztertzeak bezalaxe nahigabetzen zuen iraultzaren edo beste edozein arrazoiren izenean arbuizatzeak.

Anai-arrebak, entzun ene aho-otsa: izaite bat ez daike hezur hutsez osa; herria da gorputza, hizkuntza bihotza; bertetik berextean bitarik bakotxa, izaite horrendako segurra hil hotza.

Batzu herriaz orroit, euskaraz ahantzi; bertzek euskara maite, herria gaitzetsi; hizkuntza ta herria berex ez doatzi, berek nahi daukute konpreniarazi bata bertzea gabe ez daizkela bizi.

## KANTU ETA BERTSOZALE

Hamalau urtetarako bere gain zituen Xalbadorrek ardien lan guztiak. Artzantzako lanak ikasi samartuak baitzituen ordurako aitaren ondoan. Hala ere, artaldea bere gain hartu arte elizara joan behar izaten zuen kantura eta gogotsu joan ere, "kantuz gustu bainuen ordukotz". Eta eliz-kantuetatik euskal kantuetara jo zuen berehalaxe, artzain lagunek eta batez ere izeba Marianak erakutsirik.

Hemeretzi urterekin galdu zuen Xalbadorrek bere aita. Hala ere, harekiko eta Aldudekiko (hangoa baitzen aita) atxikimendurik ez du sekulan galduko. Oroitu ere oroituko da aita ez ezik aitona ere bertsozalea eta kantuzalea izan zela. Biak ere bertsoan zerbait egiten zutenak, noski, "ez naiz gure arrazan ni lehena pertsutarako gogoa izan dutana" aitortzen baitu Xalbadorrek. Aita, gainera, "kantari gaitza" zuen, eta "ageri zen ariman zuela kantua".

Baina bertsozaletu Piarre aldudetar artzainak bertsozaletu zuen. "Gizon horrekin elekatzen nintzan guziz hautemaiten nuen nihaur pertsulari izaiteko tirria bizi bat" argitzen baitigu.

Xalbadorrek aurrekoengandik hartu zuena ez zuen beretzat bakarrik hartu, haren lau seme-alabak ere bertsozale ezezik, bertsolari, kantari eta olerkari ere badirenez. Gostua eta moldea eman zizkien, nonbait, kanturako eta bertsoarako.

Leoni, "Ferrando"ren emazteak, lau seme-alaben eta etxearen arduraz gainera, ardi eta behien lanak hartu behar izaten zituen bere gain, Xalbadorrek bertsoan egin zezan.

## LEHEN BERTSOA

Lehen bertsoa 16 urterekin kantatu zuen Xalbadorrek. Ostatuan bertsoan ari zirenei kanpoko leihotik erantzunaz kantatu zuen, hain zuzen ere. Mutiko mukizu haren lotsagabekeria gaizki iruditu zitzairen, nonbait, "zakur batzu bezala oldartu baitzitzauzkitan". Eta "zerbait gaizki egin izan banu bezala ihes egin nuen mendi aldera".

Geroztik bertso asko kantatu zuen Xalbadorrek ostatu horretan lagunartean, baita bakarrik ere, bapatean kantatuz batzutan, "denbora hartuz" besteetan, "hobexago batzuen moldatzen". Baina 19 urte zituenean,



11

bi gertakarik jo zuten Xalbador, bertsozaletasuna ia itzaltzeraino: aitaren heriotzak eta Frantziako gerlak.

Dena utzi samarra zuen garaian Teodoro Ernandorena heldu zitzaion etxera 26 urteko artzainari, 1946an Donibane Lohizunen antolatu zuen txapelketaren berri ematera. Ordurako hila zen 21 urterekin Luhoson bertotan neurtu zuen Panpele. Isildua Aldudeko Harriet bertsolaria. Iriarte eta Zubikoarekin joan zen Xalbador txapelketara eta hantxe ezagutu zituen Mattin, Etxahun eta Errexil.

Xalbador eta Mattin: Bata haundia eta lerdena, bestea ttikia eta potxoloa, bata serioa eta bestea irri arazlea, Kixote eta Santxo ziruditen.



Hamasei bertsolaritatik zazpigarren geratu zen Urepeleko gaztea. Hala ere, egun hori "munta haundikoa izan zen" Xalbadorrentzat, hor ezagutu baitzuen Mattin eta hortik aurrera hasi baitzen bien arteko bertso-ibilia. 1960 aldera antolatzen hasi ziren hegoaldeko txapelketetara eta jaialdietara ere biak etortzen ziren iparraldearen ordezkari.

Xalbadorrenean bazen eskubete lan, noski, artzantzatik lau seme-alabeko familia hazten eta aurrera ateratzen. Urepeletik bertsoarako atzera-aurrerak egitea ere ez zen berriketa autorik ez zen garaietan. Bere emazte Leoniri esker egin ahal izan zituen Xalbadorrek bertso-ibili txar haiek denak. Izan ere, gorputz eta arima bizi zuen bertsoa. Arrazoi osoz esaten du, noski, Mixel seme zaharrenak: "aita baino artzain hobeena naiz, baina aita baino bertsolari txarragoa". Xalbadorrek, jakina, "etxaldeari egin kalteaz eta etxekoeri pairarazteaz du bakarrik damu; ez osagarriaren mendratzeaz, hogoi urte laburtu banu ere ene bizia".

## MATTIN ETA XALBADOR

Hegoaldean dena debekaturik zegoen aldi hartan Iparraldean antolatu ziren bertsolari txapelketak. Eta haiei esker erne zen bertsozaletasun apur bat bertsolaritza galtzear zegoen lurralde horretan ere. Orduan "hasi zen jendea guri dei egiten, herriko bestak zirela edo tobera edo zerbait holako zela" oroitzen da Xalbador.

Iriarte, Zubikoa, Etxahun eta Errexilekin ere kantatu zuen hasiera hartan. Geroxeago baita Xanpun eta Ezpondarekin ere. Gehiena hegoaldean ibili zenez, Basarri-Uztapide gipuzkoar bikotearekin eta Azpillaga-Lopategi bizkaitarrarekin asko kantatu zuen aldi batean. Lazkao-Txiki, Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Imanol Lazkano eta abarrekin ere askotan, jakina. Baina han eta hemen, Mattin Treku izan zuen uztarlagun, Ahetzeko bertsolari ttiki, umoretsu eta irrintzilaria. Bata haundia eta lerdena, bestea ttikia eta potxoloa, bata serioa eta bestea irri arazlea, Kixote eta Santxo iruditzen zitzaizkion Joxemari Aranalderi.

"Mattin izan da ene ardurenako laguna, edo kontrarioa? Noiz nola! Badugu zonbait ibilaldi eginik elgarrekin, eta zonbait pertsu kantaturik ote? Ba ote da gu



Xalbador eta Mattin, Usurbilgo plazan, Joxean Artzek hain famatua egin zuen elizaren dorrearen aurrean.

ezagutzen ez gaituen euskaldunik mugaz bi aldetan? Guti ba hain segur".

Xalbadorrek ongi daki oso ezagunak direla Mattin eta biak. Hala ere, horretan ez du baieztapen borobilik egin nahi. Baina Mattinekin uztartzeak zuen nekeaz ez du galderarik egin beharrik.

# 14

"Ez naiz ni beti errexki ari izana Mattinekin. Ez ginuen artzeko molde bera. Nik ez nuen balio irri egin arazteko. Hala beharrez entseatu banaiz ere, maiz gaizki heldu izan naiz. Mattinen harmarik hoberena, berriz, hori izan da beti.

Nihaurek ere irri egin dut frangotan, horren ateraldiak entzun eta. Ez ordea, bertzeri irri egin arazteagatik, nihaur joiten ninduelarik! Horrek ez du alabainan nehor errespetatzen. Badauzkit ximiko bakarrak eginak bihotzean.

Beharrik, aspaldi ikasi nuen hobe zela horrekin ez gaitzituarena egitea.

"Xalbador" baserria, Ferdinand Aire bertsolariari "izana eta izena" eman zizkion sortetxea.



Bertzenaz, hainbat gaixto: loriatzen da norbait hunkitua ikusteaz eta haundiagoak botako daukitzu. Orduan etzaizu gelditzen zuhaur irriz hasteaz bertze erremediorik. Zer egin bada bertzerik? Badaki ba berak ere etzaiola nehor jotzen hasiko, ahalgez ere!

Hortik kanpo, Mattin nor nahi bezain gizon ona eta atsegina da; lagun guztiek maite dugu".

Hori da Xalbadorren Mattinekiko iritzia. Beretsua du Mattinek ere bien harremanekiko. "Hau beti gizon serio sago, ni berriz arrailarian, besta batean bikote ona biek egiten ginian" kantatzen dio Urepelen, omenaldi egunean, "guk hain maite dugun harendako" bildu zirela aitortu ondoren. Aheztarrak aitortu ere aitortzen dio urepeldarrari, bera izan zuela "gidari beti edo gehienian". Eta "arrazoina bazuela" esaten zionean "deabru mutiko ergela!", Xalbadorrek ezartzen baitzuen "beti bide zuzenian".

Eta omenaldiko egun hartan haundiagorik ere aitortuko ziokeen Mattinek Xalbadorri, honek ez balio debekatu. Hain zuzen ere, hauxe nahi baitzion kantatu: "hura zela iguzkia ta ni, berriz, haren itzala". Baina sobera famatzen zuela iruditurik, "hoi ez diat nahi kantantzea" erantzun zion.

## INGURUAREKIN BAT EGINIK

Inguruarekin bat eginik bizi da Xalbador. Bertsolaritzan ere bizitzako gorabeherak zaizkio atsegin. Ez du bertsotarako alegiazko gairik maite. Bere inguruarekin eta bere buruarekin elkarrizketan ari da etengabe: aita eta ama, emaztea, seme-alabak, adiskideak, Euskal Herria, euskara, eliza, fedea, Jainkoa... Bizidunak eta hiztunak balira bezala mintzo da gauzekin ere: sortetxearekin, artzain etxolarekin, ohearekin eta abarrekin.

Hona nola mintzo den bere sortetxearekin:

Oi gure etxe maitea,  
orroitzapenez betea,  
zorionaren atea!  
Zure altzoan iragana dut  
sortzetik orai artea.  
Izanagatik pobrea,  
bertzeak baino hobea  
ni sortu nintzan etxea.

Urepel eta Aldude, Xalbadorrek bihotzean eta begietan ezin ahazturik dituen bi herrien arteko lurraldea.

Amak, munduratekoan,  
etxea, zure xokoan  
hartu ninduen besoan.  
Geroztik hunat eduki nauzu  
zure geriza goxoan.  
Nabilarik kanpoan  
ez naiz sosegu osoan,  
beti etxea gogoan.

Dudalarik zerbait pena  
zu zaitut lagun lehena  
ihes leku hoberena.  
Zure alderat inguratzen naiz  
ahalik eta maizena.  
Munduko leku maitena,  
zuri zor dautzut naizena:  
Izana eta izena.

Bere etxearekin elkarrizketan ontzen ditu Xalbadorrek "Sortetxeari" eskainitako 8 bertsoak.

15





Xalbadorrek  
Leoniri: "Ikusten dut  
beti ta hobe zoazala,  
armairu-xokoan dan ardoa bezala".

Bihotz hori bere gurasoekin, bere emazte eta hurrekin, bere etxearekin, bere hizkuntza eta herriarekin eta bere adiskideekin agertzen du. Nola gogoratzen, eskertzen eta maitatzen dituen denak! Baina bere maitasuna ez zen bere ingurukoetara bakarrik mugatzen, mundu guztira zabaltzen baizik. Besteak beste, hor daude Ezpeletako mendietan, hotzak eta goseak hildako hiru gizon beltzei eskainitako bertsoak. "Arrotz horiek horrela hiltzen ikusiz gure artean, nolaz eduki genezake guk kontzientzia bakean?" galdetzen du.

## BIHOZPERA ETA KEZKATIA

"Xalbadorren bihotza! Zuk, gizon hau ezagutu ez duzuna, begira zazu azalaren latza edo begiaren iluna baino barrenado, edo berari ezin begiratuan, irakur edo abestu, gora gora, liburu honetako kantuak. Bihotz bat, Xalbadorren bihotza, duzu hemen aurkituko bero beroa, hitz eta gogoeta guzietan jo eta jo ari. Jo, bai, egiten du, eta panpaka, edo pilpiraz. Horra nun dagoen hor bihotz hori dardaratua eta inarrosia, eta bihotzarekin, bihotza bezain bizi eta minbera, gizona bere osoan" idazten du Emile Larre, euskaltzain bertsozaleak *Odolaren mintzoa* liburuaren aintzin solasean.

Xalbador, bertsotan hasi berria zen Mixel semearekin eta Lopategi eta Azpillaga bizkaitar bikote famatuarekin.





Maitasunak, gainera, bestearen askatasuna eta nortasuna errespetatzera behartzen du. Xalbadorreneko andre-nagusiak bakarrik geratzen ari ziren. Hainbeste maite zuten etxea nork zaindurik gabe, seme zaharrena Ameriketara baitzen artzain, eta besteak kanpora ezkonduak. Halaxe idazten dio bertsoan: "gure etxean sendi duk uda azkena, hi haiz uda berria ekar hezokena". Hala ere, Xalbadorrek ez dio etortzekorik aginduko.

Baina ez nitek nahi, o seme maitea, desafia dezakan kontrako haizea: sort-etxearen karga bortxaka hartzea; hobe baituk hi baino etxea galtzea, nahiz trixtea izan gure zahartzea.

Eta familiarekiko, herriarekiko eta gizon-emakumeekiko duen maitasun bero hori berbera du Jaikoarekiko ere. Ez zen "santujale" horietakoa. Baina harreman sakonak zituen Jainkoarekin, beldurrezkoak, gaztetan, gozoak, gerora. "Jankoa eta ni" eta "Ortzirale Saindu bateko gogoetak" bertsoak irakurtzen dituen laster ohartuko da horretaz.

Henriette, Leoni eta Xalbadorren alaba zaharrena, aita bezalaxe olerkirako trebea.



17

Daniel eta Helene. seme-alabarik gazteenak eskolan, haundiak egindakoan, bata kantuan eta bestea ikastolan irakaskuntzan arituko zirenik asko pentsatu gabe.



## SARIAK ETA OMENALDIAK

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketetan gora egin zuen Xalbadorrek etengabe. 1960an laugarren gertatu zena, 62 eta 65ean hirugarren suertatu zen. 1967an, berriz, txapeldunorde izatearekin etsi behar izan zuen, jo zitzaizkion txistuekin epaimahaia ez baitzen ausartu Xalbadorri txapela ematera. Bertsolariek eta bertsozaleek askotan

aipatu izan dute geroztik egun hartan Urepeleko artzainarekin egindako bidegabekeria. 1968ko otsailean antolatu zen sariketan, ordea, Basarri eta Xalbadorren artean banatu zen ehun mila pezetako lehen saria.

Bapatekoetan ez zuen merezi zuen txapelik jazterik izan, zoritxarrez. Bertso-paperetan, berriz, askotan irabazi zuen lehen saria.



Donibane Lohizunen 1976ko ekainaren 20an eskainitako omenaldian, Uztapide, Bordari, Xalbador eta Lafitte.

Euskaltzaindiak urtero antolatzen zuen "Xenpelar" bertso-paper saria lau aldiz irabazi zuen: "Sortetxeari" izenekoekin 1972an; "Gure artzain etxolari" eta "Mendian galdu direnei" sortekin 1973an; "Ortzirale Saindu bateko gogoetak eta otoitza" sailarekin 1975ean; "Ene ama zenari" deituekin 1976an. Urepeldarrak irabazi zuen Gipuzkoako Pelota Elkarteak 1975ean, bere urrezko eztaietan antolatutako saria ere, "Pilota, euskal jokoa" bertso-paperekin.

Omenaldiak, berriz, hiru jaso zituen: lehenengoa Donostian 1969an Bertsolari Egunaz; bigarrena, Donibane Lohizunen 1976ko uztailaren 20an. Urrezko domina eskaini zioten egun hartan "herriko seme kuttun" ere izendatu zuten donibandarrek, ordurako begi bat galdua eta bihotza eri zituen Xalbadorri. Hirugarren omenaldia, Urepelen bertan egin zitzaion 76ko azaroaren 7an. Hil ondoan, berriz, herri askotan egin zitzaizkion. Sorterrian, berriz, urtero. Izan ere, Xalbador bera eta Xalbadorren bertsoak gogoan izango dira mendez mende.



Xalbadorren heriotzaren X. urtemugan, hil zen plazan eta bizi izan zen etxearen ondoan oroitarriak ezarri zitzaizkion.

Eta bere hilobira inguratzen den  
euskaldunak oihu ozen eta larri hau  
entzungo du:

Ama Euskal Herriaz naiz naigabetua,  
uzterat doalakotz betikotz mundua,  
bere seme alabez abandonatua;  
nork barka dezaguke gure bekatua?

Bata dela eskuina, bertzea ezkerra,  
euskaldunen artean hazi dugu herra,  
ahantziz, Ama, zure maitasun ederra;  
horra zure seme hok dautzugun eskerra.

Baztertu dugulakotz zure maitasuna,  
desegin da betiko gure batasuna;  
gu baitan aditzen da gudu oihartzuna,  
hau da zuri bizia ekendu dautzuna.

Lehen sartu zitzauzun espata zorrotza,  
zure etxe nagusi jartzean arrotza;  
halere etzitzauzun gelditu bihotza;  
etxekoen eskutik duzu heriotza.

Hil hobi huntan noizbait norbait balabila,  
zure izaitearen herrestoen bila,  
lurpetik entzunen du deiadar bipila:  
Hemen dago ama bat bere haurrek hila!